



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

“Euskal antzerkiaren funtsak liburutegi eta artxibategietan”

2014ko Azaroak 20, osteguna.

Koldo Mitxelena Liburutegiaren egoitza, Donostia.

Goizeko 10:30ean

 **Sabino Arana Fundazioa. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.**
Iñaki Goigana.

Jose Maria Tapizek, bere *El PNV durante la II Republicana*, dio 1931tik 1936ra bitartean zenbatu dituela 370 antzerki lan. Egileak, berriz, 100 ingururen berri duela eta 180 antzerki lanen egileei buruz apenas dagoela daturik. Baita dio ere emanaldiak, bost urteko horretan, 1.400dik gora daudela dokumentatuta. Azkenik, Tapizek dio emanaldiak urtez urte goraka egin zutela Errepublikaren denboran.

Apirileko erregimenaren urteetan euskal antzerkiaren eta abertzaletasunaren artean izan zen lotura ez zen bat-batean sortua. Alderantziz, Sabino Arana bera hasi zen antzerki lanak idazten eta bere pentsamendua zabaltzeko erabiltzen. Harrezkero jardun honek bide luzea eta oparoa izan zuen, esan dugun legez Errepublikako urteetan gailurra joz, emanaldi kopuruaren aldetik behintzat.

Antzerkiaren eta abertzaletasunaren arteko lotura antzerki lanen ideologian eta emanaldi kopuru hazietan bakarrik ez da ikusten. Euzko Alderdi Jeltzaleak bere egoitza sozialetan, handienetan behintzat, gela bereziak kokatu zituen antzokiak egiteko. Euskal abertzaletasunarentzat antzerkia ez zen *divertimento* huts bat; primerako tresna bat zen bere mezua herrian zabaltzeko, hurbila, beste era batera EAJren mezura joango ez zirenak erakartzeko tresna ezin hobea.

Egin zen guztia eginda, gure artxihoan uzta oparo horren neurriko oihartzuna behar genuke, baina ez da horrela. Gure herriak bizi izan dituen azken 120 urte gorabeheratsuak izanda (gerra eta diktadurak tarteko) Abertzaletasunaren artxihoan behar legokeen dokumentazio masatik urrun gabiltza. Arana Goiri anaien (Sabino eta Luis) dokumentazioaren zati handi bat badugu eta funts honetan Sabinok idatzitako lanak eta zirriborroak aurkitu daitezke, baita emanaldietako esku programak eta abar ere.

Aranatarren paperak neurri handi baten gorde izan dira jeltzaleek zieten miresmenari esker, baina funts hau gordetzeko hartu ziren neurriak ez ziren errepikatu Errepublika aurreko denboretan sortu zenarekin. Orduan Primo de Riveraren diktadura zela edo geroago etorri zen gerra zela, apenas dugu funtsik XX. mendeko hamarreko eta hogeiko hamarkadetakorik, urte emankorrak euskal antzerkian.

Errepublikan EAJk antzerkiaren erabilpena apur bat zirriboratu dut eta horrekin esan zein aberatsa izan zen. Baina, baita esan dut gerra eta diktadura izan genituela ere. Lurralde batzordeetako dokumentazioa eta hainbat eta hainbat batzokitakoa frankistek harrapatzeko desegin ez bazan frankistek beraiek lapurtu zuten eta errepresiorako erabili. Antzerti lanak eta honi loturiko dokumentazioa nekez zitzaien diktaduraren agenteei axola, sarritan ulertu ere ez zutelako egiten, eta ondorioz suntsitu egin zuten. Kontu egiteko zenbat agiri galdu zen nahikoa da esatea Salamancatik itzuli ziguten dokumentazio guztia 20 artxibo kaxatan nasai kabitzen dela, gainerako guztia hauts edo ke bihurtu zen.

Kontuan hartu behar dugu hogeiko hamarkada horretan sortu zirela *Saski-Naski* Donostian, *Oldargi* Bilbon, *Jostari* Iruñean, *Alayak* Erandion eta *Baraibar taldea* Gasteizen, behar bada puntarengo taldeak, eta hauekin batera hainbat eta hainbat batzokitan talde txikiagoak. Guzti hauen dokumentazioaren zati garrantzitsuena desagertu zen.

Gerra denborako dokumentazioak eta erbestaldiko paperek ere ez dute merezi zuten suerte izan eta ez zaigu dena heldu. Aldi honetan, berriz, daukagun dokumentazioa Euzkadi Buru Batzarrari dagokiona da, hau da alderdiaren agintaritzakoa. Honek esan nahi du oinarriko militanteek sorturiko gutxi dagoela, hain zuzen ere antzerkia egiten zutenena falta zaigula.

Orain arte esana negar lantua izan da, batetik asko izan zela dakigulako eta guzti horren isla txiki bat besterik heldu ez zaigulako. Baina heldu zaiguna, bere honenbesteko txikian, bada zerbait.

Gurean duguna bost multzotan banatuko nuke:

1.- Originalak edo kopiak. Gordetzen ditugun funtsen artean badira antzerti lanak. Batzuk jokatzeko erabili zirenak eta beste batzuk artxiboan gorde zituztenak. Lanon jatorria, orokorrean, partikularrek egindako dohaintzetan dago. Hain zuzen, hainbat abertzalek etxean gorde zituzten bake denborako materialak eta hauen artean teatro lanak, eta urteak igarota gurera etorri dira.

2.- Artxibo dokumentazioa. Antzertiak ez du bakarrik tramoia behar, antolatzeko, sostengatzeko, jokatzeko hainbat paper idatzi behar da, eta gurean paperetik bada. Esan dut antzerkia tresna garrantzitsua izan zela abertzaletasuna hedatzeko. Honek esan nahi du beste edozein tresnak izan dezakeen isla izango duela gure artxiboan. Hau da prentsarena, dantzarena, musikarena eta abar. Antzerkia bitarteko bat zen, garrantzitsua, baina bitartekoa. Honek esan nahi du gainerako dokumentazio administratiboarekin batera batzuetan eta besteaz diharduen dokumentazioak antzerkiaren aritu daitekeela, eta diharduela.

3.- Prentsa. Seguruena prentsa izango da euskal antzerkiaren historia egiteko iturri emankorra. Historia diodanean alde batera utzi nahi dut antzerti lana bera, eta gainerako guztia hartu. Antzerti lanak lehenengo eta bigarren puntuetan aipatu ditut, honetan beste guztia. Prentsa abertzalea amai bako iturburua da horretarako eta nago, gutxi edan dugula bertatik. Gurean prentsa abertzalearen bilduma osoa ez baina multzo ederra aurkitu daiteke.

4.- Argazkiak eta beste. Milaka argazki ditugu gure artxiboan eta hauetatik mordo ederra antzertiarekin zerikusi dutena. Honetaz aparte, gure bilduman badira antzertiak jokatzeko erabilitako jantziak eta beste elementu batzuk ere.

5.- Azkenik liburutegia aipatu nahi dut. 30.000 titulu inguru ditugu eta hauen artean badira euskal antzertiari loturikoak. Ez dakit izan daitekeen gurean beste inon aurkitu ez daitekeen liburutegi, izatekotan baten bat besterik ez da izango, beraz gure liburutegian dagoen euskal antzerti funtsa beste liburutegi batzuetan ere bada, baina gurean ere bai.

Guzti hau eta gehiago dugu euskal antzertiari zuzen edo zeharka lotua, dena ikertzaileen zain dagona. Paperak eta abar zain eta gu artxiboaren ardura teknikoak dugunok interesdunak hartzeko irrikitan

Iñaki Goigana, Abertzaletasunaren Agiritegia.

Sabino Arana Fundazioa.

Mandobide, 6-3. 48007 Bilbo